

KATALUNIAKO ERREPUBLIKAREN AITORTZARI BURUZKO MOZIOA

ZIOA:

Zaldibiako Udalak eta herritarrek maiz adierazi izan dute Euskal Herriak, Kataluniak edota hala nahi lukeen ezein herrik, bere etorkizuna libreki, herritarren borondate soilaren arabera, erabakitzeko eskubidea duela. Pasa berri den urriaren 27an Kataluniako Parlamentuak eskubide hori baliatu eta Kataluniako Errepublika independentea aldarrikatu du. Erabakia bertako herritarren borondatean oinarritzen den heinean, zilegitasun demokratiko osoa du, urriaren 1eko erreferendumean Estatu espainolaren bortizkeriari eta errepresioari herritarren botoak gailendu zitzaizkielako. Irailaren 21ean Zaldibiako Udalean onartu zen mozioan ere erreferendumari zilegitasun osoa aitortu zitzaion, besteak beste.

Errepublika independentea aldarrikatuta, Kataluniako Parlamentuak prozesu eratzaille, demokratiko eta parte-hartzailea abiarazi du, eta munduko estatu eta erakundeei dei egin die Errepublika katalana Estatu independente eta burujabe gisa hartzera. Hori horrela, Zaldibiako Udalak dei horri erantzun behar dio modu positiboan, eta Kataluniako Errepublika independentea aitortu behar du.

MOZIOA

1. Zaldibiako Udalak 2017ko urriaren 1ean Katalunian burututako erreferendumaren ondorioz Kataluniako Parlamentuak aldarrikatu duen Kataluniako Errepublika aitortu eta errespetatzen du, zuzenbide Estatu independente, burujabe, demokratiko eta sozial bezala.
2. 155. Artikuluaren aplikazioa, atxiloketak eta bestelako errepresio bideak salatzen ditugu. Ez dugu onartzen kataluniarrek demokratikoki hautatutako Gobernu eta Parlameta desegin eta Espainiar Gobernuak eskumenak bereganatzea.
3. Dei egiten diegu Zaldibiako herritarrei, Kataluniar herriari babesa eman eta antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko.
4. Zaldibiako Udalak ebazpen hau Kataluniako Generalitateari eta Espainiako Gobernuari jakinaraziko die.

Zaldibian, 2017ko azaroaren 2an